

PLANAREN GAUZATZEA

Toponimia ez omen da aldatuko

Rafael Gurrea Nafarroako Gobernuako presidenteordeak atzo adierazi zuen euskararen erabilera Foru Administrazioan arautzen duen Foru Dekretuaren bidez ez dela inguruko toponimia aldatuko, eta ez direla toki izenak erdaldunduko. «Ez dira bide seinaleak aldatuko euskaraz egoteagatik, baldin eta hori bada jatorrizko izena. Bai ordea aldatu beharko litzateke *aireportua* Iruñeko karteletatik, euskara ez baita Iruñeko hizkuntza ofiziala». Gurreak esan zuen ere dekretuaren bidez edukiz beteko dela Euskararen Legea, eta nabarmendu zuen «ezta nahita ere» ezingo direla seinaleak berehala aldatu. «Herrilan Departamentuak 114 milioi ditu aurten horretarako, beraz ezinezkoa da», esan zuen.

da, eta oraingoz, ez du ondoriozik izango. Gobernuak iragarri du, nolahi ere, prestaturako duela plan zehatza arlo horretarako ere. Hezkuntzak ere bere horretan jarraituko du oraingoz. Gainontzean, suhiltzaileak, mendizainak eta albaitariak dira zona euskaldunean dauden funtzionarioak; bakar batzuk baino ez, hala ere.

Lanpostuen deialdietan izan lezake eragina

Ondorioz lanpostuen deialdiak izan litezke kaltetuenak. Egun, bai Bortzirietako Euskara Mankomunitatean dauden herrietan —Arantza, Bera, Igantzi, Etxalar eta Lesaka—, bai Leitzaldeko udaletan bai eta Udalari Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartuta dauden herrietan ere, ia lanpostu guztietarako jotzen da euskararen ezagutza derrigorrezkotzat.

Horrek aurrez aurre jotzen du Foru Dekretuaren irizpideen aurka, bertan azpimarratzen baita euskara soilik itzultzaile eta irakasle lanpostuetarako eskatuko dela, eta gainontzekoei, merezimendutzat hartzen denean, puntuazio osoaren %5,5a emanen zaiola.

Hori dela-eta, eta Foru Dekretua onartu eta bihamundean, Toki Administrazioako Departamentutik eskatu egin zitzaion Leitzako Udalari igorri zezala 1993an onartutako euskararen ordenantzaren eta erabileraren testua, eta egun aztertzen ari dira akordio hura. Departamentu honetako burua Rafael Gurrea da, hain zuzen ere dekretuaren eta plan guztien koordinazioa egiten ari dena.

EH

«UPNk gatazka eta beldurra areagotu nahi du»

«Gorritoak eraginda, euskara bistatik kendu nahi UPNk, ikusten ez den hizkuntzak eragina galtzen du-eta», salatu zuen atzo EHko Fernando Barrenak. «UPN ahalegin basatia egitean ari da gure kultur ondare nagusia deuseztatzeke, eta nafarren hizkuntz eskubideak zapuzten ari da. Politika honekin gizartean tentsioa handitzen ari da, euskaldunon sufrimendua areagotzea bilatzen baitu UPNk, mendeku nahiak eraginda. Egun gutxi barru aurrematrikulazioak egiteko epea zabalduko da; hor izanen dugu atxikimendua erakusteko aukera ezin hobea».

EA

«Euskara akabatzekeko estrategiari heldu dio berriro ere UPNk»

EAKo Nafarroako Batzordeak salatu zuen atzo UPNren estrategia «euskara akabatzekeko», eta leporatu zion alderdi honi «legea dekretuz gainditzeko nahia, Nafarroa kultur basamortu bihurtzeko, sozial eta politikoki ernegatuta eta amorratuta». Talde honek ohartarazi du: «UPN arduragabekeria politiko handia erakusten ari da, osasun publikoarekin lotuta beste gaiekin erakusten ari den bezala». «Dirua gastatu behar da diskriminazioa eta bidegabekeria bultzatzeko, alderantziz egin beharrean; deuseztatu behar da, eraiki beharrean».

EAJ

«UPNk gatazka sortu nahi du gatazkarik ez zegoen tokian»

Nafarroako EAJren ustetan, azken dekretu eta planekin UPNko gobernuak «gatazka sortu nahi du gatazkarik ez zegoen tokietan, euskararen normalizazioaren alde egin beharrean, nafar guztion ondare kulturalarendako atzerapauso eta iraina da». EAJren ustetan, azken urteotan Miguel Sanzen gobernuak planteatutako ekintza guztietatik bakar bat ere ez da izan euskara kontserbatu edo defendatzeko eginga. «Bertan bizi direnentzako diskriminazioa da, kalean erdara hutsean errotulatu bailitezke, eta berdin paper eta irudi publiko guztiarekin ere».

TOMAS AZPIROZ LEITZAKO ALKATEA

«Udal autonomiaren aurka jo nahi dute»

A.B. | IRUÑEA

Leitza da egun Nafarroan UEMA Udalari Euskaldunen Mankomunitatean sartuta dagoen udal handiena. Bertako alkateak dioenez, behar-beharrezkoa da hainbat udalen arteko erantzun bateratua, eta gaur bertan bilera deitu dute inguruko beste hainbat alkateekin, Iruñean bertan. Tomas Azpiroz (EH) zalantzak ditu gainera udal autonomiaren kontra joko ote duten, Leitza aspaldian onartu baitziren udal ordenantzak.

■ **Gobernuak herenegun hartutako erabakiak zuzen-zuzenean jotzen du herritarren eskubideen kontra. Zerbait egiteko asmoa duzue?**

Euskaldunen hizkuntz eskubideen kontrako eraso da, argi eta garbi, eta erantzuna behar du, eta ahal bada aste honen barrenean gainera. Udalek jarri bat hartu behar dutela iruditzen zaigu guri, behintzat.

■ **Beraz eta pentsatu duzue bildu eta adierazpenik edo egitea?**

Harremanetan gaude eremu euskalduneko alkateen artean eta planak hartu, ondo aztertu eta, hostasunez, erabakiak hartu behar ditugu. Bihar [gaur] bilera egingo dugu Leitzaldeko, Sakanako eta Bortzirietako hainbat alkatek, euskal eremuko alkateek alegia, eta hitz egingo dugu gaiaz. Alderdi desberdinetakoak nahi ditugu, alderdi poli-



JOXE LACALLE

tikoen gainean dagoen arazoa delako. Hortik adierazpen komuna luzatu nahi genieke gero gainontzekoei.

■ **Udal antolamendua izan liteke, epe ertainean, kalte-tuena Gobernuaren erabakiekin.**

Garbi dago euskararen ordenantzen aurka egin dezaketela, eta hortik joko ote duten beldurra badago. Egun, gure

funtzionamenduari esker —lanpostu guztietarako euskara eskatzen da—, euskararen erabilerarako bermea dago udalaren barruan, eta gainera UEMAn sartuta egonda, bada horren aurka egin lezaket. Nolanahi ere, hori udal autonomiaren aurka jotzea litzateke, eta ikusi behar da orain nondik datorren hurrengo erabakia.

JOSU GOIA BERA-KO ALKATEA

«Zona hau zigortzen ari da UPNko gobernuak»

A.B. | IRUÑEA

Bera, eskualdeko beste lau herriekin batera, Bortzirietako Euskararen Mankomunitatearen partaidea da, eta, egun, udal lanpostu guztietan euskara eskatzen du Udalak. Josu Goia (EH) bertako alkatearen esanetan, euskararekin gertatzen ari dena zonalde osoarendako UPNko gobernuak duen jarreraren beste adibide bat baino ez da.

■ **Zer balorazio egin dezakezu Gobernuak onartutako dekretuaz?**

Garbi dago zona hau zigortzen ari dela Gobernuak, gogoz zigortu ere. Jakin dugu, errate baterako, hiru urteko planarekin zigortuak izanen garela,

diru iturriak banatzeko ez dirrelako irizpide berdinak erabiltzen eskualde guztietan; gero Endarlatsako errepidearena dago, erabat geldirik, eta azkenean euskararekin gauza bera gertatzen ari da. Hiru arrazoi ditugu hor protesta egiteko.

■ **Pentsatu duzue nola egin?**

Nola ez dakigu, baina inguruko alkateak bildu eta zer edo zer erabaki behar dugu.

■ **Azken erabaki hauetan aipatzen da seinalizazioa eta foru administrazioa, baina horrek eragin txikia izanen du inguruan. Udal administrazioan, ordea, akaso bai.**

Jakina, lanpostuen deialdie-



EDURNE KOCH

tan izan dezake eragina, Bera-ko Udalean eskatzen dugulako nahitaez euskara jakitea.

■ **Akaso irizpide horiek aldatu beharko dituzue.**

Guk ez ditugu irizpideak aldatuko, lehen bezala jarraituko dugu, kontraesana bailitzateke bestela. Azken lanpostuan, errate baterako, albaitariarena atera dugu, eta euskara es-

katu dugu hor, ze, euskaraz jakin gabe, ea zer egiten dugun hemen?

■ **Inguruko seinalizazioa ere ele bitan da gehienbat.**

Euskara hutsezko oso gutxi daude, gehienak elebidunak dira. Gobernuak paratu zigun *Bera-Vera de Bidasoa* sarrean, eta guk aldatu eta *Bera-Ongi etorri* paratu genuen.